**Trinitate plazaren legezko edukiera murrizteak segurtasun neurriak eraberritzera behartzen du**

## Gregory Porter-en emanaldirako sarrerak agortuta

Segurtasun neurri berriak aplikatuko dira Trinitate plazan, berehala ospatuko den 52. Heineken Jazzaldian, Eusko Jaurlaritzak onartutako Ikuskizun eta Jokoei buruzko Legearen xedapenak bete ahal izateko.

Trinitate plazaren legezko edukiera 1.780 ikus-entzuletan finkatu da.

Ez dago baimenduta eserlekuak erreserbatzea Bolatokiaren gaineko harmailetan, segurtasun arrazoiengatik eta eremu horretako edukiera mugatuta dagoelako (214 pertsona gehienera).

Segurtasuneko enplegatuen kopurua % 100 igo da eta ebakuazio-bide gehiago ezarri dira.

Eserlekuen arteko igarobideak zabalagoak izango dira, taberna bakarra egongo da eta komun kopurua handitu egingo da.

Neurri horiek guztiak, legea betetzeko ez ezik, ikus-entzuleen segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko hartuko dira.

Hona, ondoren, Trinitate plazako kontzertuen programa:

Uztailak 22. 21:00. 28€
Charles Lloyd New Quintet
Saxophone Summit

Uztailak 23. 21:00. 38€.
Donny McCaslin Quartet
Kamasi Washington

**HEINEKEN JAZZALDIA**
Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
**T.** (0034) 943 481 900 **E. prensajazz**@donostia.eus
**www.heinekenjazzaldia.eus**

Uztailak 24. 21:00. 35€

Lucky Chops

Macy Gray

Uztailak 25. 20:00. 38€. **SARRERAK AGORTUTA**

Abdullah Ibrahim & Ekaya + Terence Blanchard

Gregory Porter

**HEINEKEN JAZZALDIA**
Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
**T.** (0034) 943 481 900 **E. prensajazz**@donostia.eus
**www.heinekenjazzaldia.eus**